

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BUJANDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Erroldak jendaurrean jartzea eta kobratzeko moduan jartzea

Kontzejuak, abenduaren 29ko bilkuran, honako hauen tasak ordaindu behar dituztenen 2019ko zerga errolda egin eta onartu du: etxeak edateko urez hornitzearenak, argiteriarenak, auzolanenak, ureztaketarenak, egur sortenak eta Bujandako lursailen errentamenduarenak. Horrela, bada, errolda jendaurrean jarriko da, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Bujandako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergenak, 9. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehen-dakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko aldia 2020ko urtarrilaren 15ean hasi eta martxoaren 15ean bukatuko da, egun biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak 2020ko otsailaren 1ean kobratuko dira kontzeptu guztiengatik, etxeak urez hornitzeko tasa izan ezik, uztailearen 15ean kobratuko baita.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek edozein banku bulegoren bitartez ordaindu ahal izango dute, etxean jasoko duten kobrantza jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Bujandako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du kargua ordainketa helbideratuta dagoen banketxeko kontuan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bujanda, 2020ko urtarrilaren 3a

Lehendakaria

JAVIER LÓPEZ DE LUZURIAGA GARCÍA